

**ABADIÑO.** Trenetarako tailerra eta bulegoak be eregiko dabez

## Tren gordelekurako lehen asmoak zehaztu dabez

Lebarion egokituko daben azpiegitura 80.000 metro koadro hartuko dauz

Aitziber Basauri

Abadiñoko Lebario auzoan trenak gordetako eta konpontzeko lekua egokitze lehenengo pausoak emon dabez. Jaurlaritzak gertu dauka beharrotarako hasikerako egitasmoa; eta Abadiñoko Udal arduradunei helarazo deusie. Proiektuaren arabera, trenetarako gordelekuak 30.000 metro koadro hartuko dauz, eta trenak konpontzeko tailerrak, barriz, 2.011 metro koadro. Bulegoak hartuko dauzan eraikina — 4.782 metro koadro — be altauo dabe, besteak beste. Halantxe azaldu dau Jabier Uriarte alkateak. Osotara, 80.000 metro koadro hartuko dauz Lebarion egokituko daben azpiegitura barriak.

Matienatik Berrizera trenak daukan bidea bikoizteko landutako egitasmoaren barruan eregiko dabez gordelekua eta tailerrak. Era berean, geltokia be egokitu gura dabe Lebarion, trenbidearen albo-alboan dagoen etxea — Estampaciones Bizkaia enprearen parean dago — bota gura dabe horretarako.

### Alegazinoetarako epea edegiko dabe orain

Alegazinoa jarteko epea edegiko dabe, orain. Eta, ostean, lurrak desjabetuko dabez. Nekazaritza lurrak dira horreek; baina, Udalak arau subsidiarioen aldaketa puntuala egin gura dau, industria lur lez sailkatzeko. «Arau subsidiarioak aldatzeko lau bat hilabete eroango lei-



Tren geltokia be eregi gura dabe Lebario auzoan..

ke; halandabe, tramiteak aurrea egin ahala be hasi leiteke espropiazinoakaz. Datorren urtean hastea itxaroten dogu», esan dau Uriartek. Espropiazinoak 2003. urte osoa iraun leike; beraz, beharrakaz 2004an hasi ahal izango dabela uste dabe Udal arduradunek. Arauen aldaketa egin aurretik, egitasmoa onartu beharko dabe.

Durangon dagoz orain tren gordelekua eta tailerrak. Eta lekualdatzea Durangon geltoki barria eregiten hasi aurretik egin beharko dabe. Horretarako Lebario beharrak hasita egon beharko dira.

Halandabe, aurretik, Aldundiak gertu euki beharko dau

Abadiño-Beasain saihebidetaren proiektua, alkateak esan dauenez. Saihebidetaren A-8 autopistegaz lotu gura dau Aldundiak eta horrek tren azpiegitura barrien egitasmo eragin leukio. «Donostiara edo Bilbora joateko autopistarako sarrerak Lebarion jarri gura dauz Aldundiak — orain Iurretan dagoz—. Era berean, Ondarroako bidea be lotu gura dabe errepideokaz. Saihebidetaren eta A-8 autopistea, N-634 errepidearen, trenbidearen eta trenen gordelekuaren gainetik eregitako zubi baten bitartez lotuko leukie».

Lehenengo, baina, tren gordelekua eta ganerako azpiegitura eregiko dabe.

**BERRIZ.** Emakumearen Batzordeak ekitaldiak gertatu ditu datorren asterako

## Andrekiko bortizkeriari aurka egiteko konzentrazioa

A.B.

Emakumearen indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna izango da zehazkiaren 25ean, eta, horren haritik hainbat ekitaldi gertatu ditu Berrizko Udaleko Emakumearen Batzordeak.

Hilaren 25erako konzentrazi-

noa deitu dabe. Udaletxe aurrean izango da alkareratzea 12:00etan. Bestalde, arrastirako, zine emonaldia eratu dabe. *Solo mia* pelikulea emongo dabe, Kultur Etxean 18:30ean.

Learreta-Markina herri eskolan ipuin kontalariak jardungo dau, zehazkiaren 26an. LHko ikasleei bideratuta antolatu

dabe ekitaldiak; eta *bortizkeriarik ez* izango da jorratuko daben gaia, antolatzaileek jakinarazo dabez. Udalak Gure Izarrak emakume alkareraren laguntzea izan dau ekintzak eratzeko.

Udaletxean begizta zuria jarriko dabe hilaren 25ean; horrez ganera, pinak be bananduko ditue herritarren artean. Gure Izarrak alkarerak, barriz, kamisetak be jarriko ditu salgai hilaren 25ean, Kultur Etxean, 18:00etan.

**ZORNOTZA.** 'RetoAlcoa' aurkeztu dabe

## Alcoa fundazioak Urritxe institutuan galdaragintza gelea jarten lagunduko dau

A.B.

Alcoa fundazioak Zornotzako Urritxe institutuan martxan jarriko daben galdaragintza gela barriaren proiektuagaz bat egin dau. Hezkuntza zentro horretako formazio zikloetan metalurgia espezialitate hori emateko aukerea euki daien preminazko azpiegitura finantziatuko dau Alcoa fundazioak. Badira 50 urte fundazioa sortu zala eta urteurrena aprobetxatu emon dabe proiektu horren barri.

Era berean, bigarren egitasmo baten barri be emon dau: *RetoAlcoa* proiektua. Intemeten bidez enpresa gestioaren ganeko simulazioa egiteko aukerea eskainiko deusie egitasmo horregaz, Zornotzako eta Durangaldeko ikasleei. Horixe daukie

helburu. Egitasmoa 16 urte eta 18 urte arteko gazteei dago zuzenduta. «Gazteek munduko benetako ekonomia aldaerak islatzen dauzan fikziozko enpresa eremuan, gestore lez daukiezan abileziak erabilteko aukerea izango dabe gazteek; baita ikasteko eta garatzeko be», esan dabe Alcoa fundazioak.

Zornotzan beste hainbat proiektutan be hartu dau parte Alcoa fundazioak. Gurutze Gorriaren egoitzearen egokitze eta hornidura beharrak finantziatu dauz; eta anbulantzia bat erosten lagundu dau. Era berean, Gixitu Fisiko eta Psikikoen Alkareraren zentro barri hidrotterapia gelea eta zentzumenak lantzeko gelea jarten be lagundu dau, jakin eragin dabenez.

### LABURREAN

IGORRE

#### Kontseiluak, gertatutako ekintza plana aurkeztuko dau, AEK-ko Kubulu euskaltegia

Kontseiluak Bizkaian gertatutako ekintza plana aurkeztuko dau, gaur, AEK-ko Igorreko Kubulu euskaltegia. Arratia bialaran euskalgintzan diharduen alkarerak, erakundeak eta herritarrek konbitatu dabez ekitaldi. Halandabe, ekitaldi edegia izango da. Aurkezpena 19:00etan hasiko dabe; eta eraturako ekintza plana aurkezteaz ganera, Kontseiluaren ganerako egitasmoen barri be emongo dabe.

ABADIÑO

#### Dirulaguntzak jaso leikiez 2001-2002 ikasturtean Kultur Etxeko ikastaroetan jardundako herritarrek

Udalak dirulaguntzak emongo deusiez, 2001-2002 ikasturtean, Kultur Etxeak eraturako ikastaroetan parte hartu eben herritarrei. Udalak 3.778 bat euroko atala zehaztu dau laguntzetarako; eta ikastaroa egiteko matrikulegaitik ordaindutakoaren %22 jasoteko aukerea daukie herritarrek. Igazko ikasturtean 200 herritarretatik gora parte hartu eben ikastaroetan. Diru laguntzak Kultur Etxean eskatu leitekez.

### AGENDA

ELORRIO

**Zinekluba:** Adolfo Aristarainen *Lugares Comunes* pelikulea eskainiko dabe gaur, Arriola kultur aretoan, 20:15ean.

**Blues kontzertua:** Arriolako XIII. Jazz Blues Jaialdiaren barruan, Arabako Reverendo Parker blues taldeak eskainiko dau, gaur, kontzertua Parra tabernan. Kontzertua 22:00etan hasiko dabe.

ERMUA

**Zinekluba:** Babak Payamik zuzendutako *El voto secreto* pelikulea eskainiko dabe, gaur, Ermua Zinemaren, 22:15ean. Ermuko hainbat kolektibok martxan jarritako

Hirugarren Munduarekiko Sentsibilizazio kanpainearen barruan eraturako *Ipar Hego* zikloaren barruan eskainiko dabe.

DURANGO

**Erakusketea:** Begoña Garaizabalek margolanak ikusi leitekez Ezkurdiko erakusta aretoan. Hilaren 24ra artean izango dira Durangoko Artisten Alkarerako kidea danaren beharrak.

**Erakusketea:** Mari Puy Herreroaren *Agua fuertes* erakusketea ikusi leiteke Beitu Art Galleryn. Hilaren 30era arte.

ZORNOTZA

**Erakusketea:** Eduardo Gonzalezen oleoak ikusi leitekez Zornotza Aretoan.